



Usurbilgo Udala

Data: 2023/06/27

2023KO EKAINAREN 27AN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia
Ainhoa Arrozpide Landa
Xabat Beloki Segurola
Iratxe Begiristain Otegi
Xabier Aranburu Leiva
Jose Maria Lizaso Azconobieta
Oskar Santamaria Picabea
Maialen Iñarra Arregi
Xabier Otxoa Muñoz
Ivan Iriondo Axpe
Josune Urkola Larrarte
Petra Romero Pozo

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2023ko ekainaren 27an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

1.- 2023KO EKAINAREN 17KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek aho batez onartu dute 2023ko ekainaren 17ko bilkurako akta.

2.- JOSUNE URKOLA LARRARTE ZINEGOTZIAREN KARGU HARTZEA.

ESKUDA33dd38-bc6b-4dbb-a997-ac4b99600df9



Usurbilgo Udala

Data: 2023/06/27

Karguaren jabetza hartu ahal izateko idazkariak zinpeko aitortpenari dagokionez honako hau irakurri du: "Indarrean dagoen Legeak esaten du Konstituzioari zin egin behar zaiola eta ezinbesteko baldintza dela kargua hartzeko, hori egin ezean ezingo lukeela kargua hartu".

Josune Urkola Larrartek zinegotzi kargua hartzeko honakoa esan du: "Legeak hala behartuta zin egiten dut".

3.- 2023/07/23KO HAUTESKUNDE OROKORRETAKO MAHAIKIDEEN ZOZKETA.

INEko Ida_Celec aplikazioa erabiliz, 2023ko uztailaren 23an izango diren hauteskundeetarako mahaikideen zozketa egin da.

4.- TOKIKO GOBERNU BATZARREKO KIDEEN IZENDAPEN DEKRETUAREN BERRI EMATEA (2023ITGB0001).

Batzarkideei Tokiko Gobernu Batzarreko kideen izendapen dekretuaren berri eman zaie (2023ko ekainaren 19ko 2023/634 dekretua) eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

5.- ALKATEORDEEN IZENDAPEN DEKRETUAREN BERRI EMATEA (2023IAOI0001).

Batzarkideei alkateordeen izendapen dekretuaren berri eman zaie (2023ko ekainaren 19ko 2023/635 dekretua) eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

6.- TOKIKO GOBERNU BATZARRARI ALKATEAREN HAINBAT ESKUMEN ESKUORDETZE DEKRETUAREN BERRI EMATEA (2023IETG0001).

Batzarkideei Tokiko Gobernu Batzarrari alkatearen hainbat eskumen eskuordetzeko dekretuaren berri eman zaie (2023ko ekainaren 19ko 2023/637 dekretua) eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

7.- ALKATEAREN ESKUMENEN ESKUORDETZE DEKRETUAREN BERRI EMATEA (2023IZDE0001).

Batzarkideei alkatearen eskumenen eskuordetzea dekretuaren berri eman zaie (2023ko ekainaren 19ko 2023/636 dekretua) eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

8.- UDAL TALDE POLITIKOEN ERAKETAREN BERRI EMATEA (2023IAES0001).

Batzarkideei udal talde politikoaren eraketaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/06/27

“Apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 34.5. artikuluan xedatu denarekin bat etorritik –Euskadiko Toki Erakundeei buruzko legea da hori–, bai eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 25. artikuluan ere –Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onetsi zuen arau horrek, AFE–, korporazioko udalbatzari aditzera eman zaio hurrengo talde politikoak eratu direla, izen, osaera eta bozeramaleen izendapen honekin:

EH BILDU ALDERDIKO UDAL-TALDEA

- Kideak:

- Agurtzane Solaberrieta Mesa.
- Jon Mikel Azpiazu Zubeldia.
- Ainhoa Arrozpide Landa.
- Xabat Beloki Segurola.
- Iratxe Begiristain Otegi.
- Xabier Aranburu Leiva.
- Jose Maria Lizaso Azconobieta.
- Oskar Santamaria Picabea.
- Maialen Iñarra Arregi.

- Bozeramalea:

- Ainhoa Arrozpide Landa.

- Bozeramale ordezkoa:

- Iratxe Begiristain Otegi.

EAJ/PNV ALDERDIKO UDAL-TALDEA

- Kideak:

- Xabier Otxoa Muñoz.
- Ivan Iriondo Axpe.
- Josune Urkola Larrarte.

- Bozeramalea:

- Xabier Otxoa Muñoz.

- Bozeramale ordezkoa:

- Ivan Iriondo Axpe.

PSE-EE ALDERDIKO UDAL-TALDEA

- Kidea:

- Petra Romero Pozo.

- Bozeramalea:



Usurbilgo Udala

Data: 2023/06/27

- Petra Romero Pozo.”

9.- BATZORDE INFORMATZAILEEN KOPURUA, IZENA ETA OSAKETA (2023IIBE0001).

Batzarkideek alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Batzorde Informatzaileen kopurua eta izena:

1. Lurralde.
2. Herritarrak.
3. Antolaketa.

Osaketa:

Batzorde Informatzaileak 5 kidez osaturik egongo dira eta talde politiko bakoitzak honako ordezkariak izango du:

- EH Bildu: 3 kide
- EAJ-PNV: kide 1
- PSE-EE: kide 1”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

10.- ZINEGOTZI LIBERATUEN DEDIKAZIOA ETA ORDAINSARIA (2023IZDO0001).

Batzarkideek alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“LEHENA: Dedikazioa izango duten karguak.

Dedikazio osoa:

- Alkatea, Agurtzane Solaberrieta Mesa.
- 1. alkateordea, Ainhoa Arrozpide Landa.
- 2. alkateordea, Iratxe Begiristain Otegi.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/06/27

Dedikazio partziala (%50):

- EAJ/PNVko zerrendaburua, Xabier Otxoa Muñoz.

BIGARRENA: Zinegotzi liberatuen dedikazioa eta ordainsaria.

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.
Dedikazioa: Osoa.
Soldata gordina: 49.004,48 euro/urtean.

1. alkateordea: Ainhoa Arrozpide Landa.
Dedikazioa: Osoa.
Soldata gordina: 33.864,18 euro/urtean.

2. alkateordea: Iratxe Begiristain Otegi.
Dedikazioa: Osoa.
Soldata gordina: 33.432 euro/urtean.

EAJ/PNVko zerrendaburua: Xabier Otxoa Muñoz.
Dedikazioa: %50.
Soldata gordina: 14.994 euro/urtean.

HIRUGARRENA: Agurtzane Solaberrieta eta Ainhoa Arrozpideren kasuan dedikazio eta ordainsariek 2023ko ekainaren 17tik aurrerako eragina izango dute, Iratxe Begiristainen eta Xabier Otxoaren kasuan, berriz, uztaillaren 1etik aurrera.

LAUGARRENA: Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75.5 atalean xedatutakoaren baitan Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan erabaki hauek argitara ematea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/06/27

11.- UDAL TALDE POLITIKOEN ETA ZINEGOTZIEN ORDAINSARIAK (2023IZOR0001).

Batzarkideek alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

- Zinegotzi bakoitzeko: 1.320 euro/urtean.
- Talde politiko bakoitzari dagokion kopuru finkoa: 4.800 euro/urtean.
- Pleno eta Tokiko Gobernu Batzarrera bertaratzeagatik dedikaziorik ez duten zinegotziak: 50 euro/saioko.
- Batzorde Informatzaileetara bertaratzeagatik dedikaziorik ez duten zinegotziak: 100 euro/saioko.

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Seguroa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Pikabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

12.- UDAL ORDEZKARITZA BESTE ORGANO ETA ERAKUNDEETAN (2023IORI0001).

Batzarkideek alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

Erakundea	Ordezkarriak	Ordezkoak
UEMA	1. Oskar Santamaria Pikabea. 2. Maialen Iñarra Arregi. 3. Agurtzane Solaberrieta Mesa. 4. Jon Mikel Azpiazu Zubeldia.	1. Xabat Beloki Seguroa. 2. Xabier Aranburu Leiva. 3. Ainhoa Arrozpide Landa. 4. Iratxe Begiristain Otegi.
EUDEL	1. Agurtzane Solaberrieta Mesa.	1. Ainhoa Arrozpide Landa.
EUSKAL FONDOA	1. Joxe Mari Lizaso Azconobieta.	1. Agurtzane Solaberrieta Mesa.
KONTSEILU ESKOLARRAK	1. Xabier Aranburu Leiva.	1. Iratxe Begiristain Otegi.
BEHEMENDI	1. Joxe Mari Lizaso Azconobieta.	1. Oskar Santamaria Pikabea.
AÑARBE MANKOMUNITATEA	1. Ainhoa Arrozpide Landa.	1. Agurtzane Solaberrieta Mesa.
SAN MARKO MANKOMUNITATEA	1. Ainhoa Arrozpide Landa. 2. Iratxe Begiristain Otegi.	1. Agurtzane Solaberrieta Mesa. 2. Xabier Aranburu Leiva.
GARBITANIA	1. Ainhoa Arrozpide Landa.	1. Iratxe Begiristain Otegi.
UDALBILTZA	1. Xabat Beloki Seguroa.	1. Jon Mikel Azpiazu Zubeldia.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/06/27

ELHUYAR FUNDAZIOA	1. Agurtzane Solaberrieta Mesa.	1. Maialen Iñarra Arregi.
BETERRI BURUNTZA MANKOMUNITATEA	1. Iratxe Begiristain Otegi. 2. Agurtzane Solaberrieta Mesa.	1. Ainhoa Arrozpide Landa. 2. Joxe Mari Lizaso Azkonobieta.
HOBEKI	1. Ainhoa Arrozpide Landa.	1. Iratxe Begiristain Otegi.

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Seguroa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azkonobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

13.- BEHIN BEHINEKO LANGILEA (ID.05/2023-0044).

Batzarkideek alkatearen proposamena aztertu dute eta erabaki hau hartu dute aho batez:

“AURREKARIAK

- I.- Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 104.1 artikulua zera dio behin-behineko langileei (ebentualak) buruz: *“Behin-behineko langileen kopurua, ezaugarriak eta ordainsariak korporazio bakoitzeko osoko bilkurak zehaztuko ditu, agintaldiaren hasieran (...)”*. Bestetik, 104 bis 1.b) artikulua zehazten duenez, 5.000 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietako udalek gehienez behin-behineko langile bat sartu ahal izango dute beren plantilletan.
- II.- 2019ko irailaren 26an egindako ohiko udalbatzaren bilkuran honako erabaki hau hartu zen: 2019ko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartzea, behin-behineko langileri postua (ebentuala) honako ezaugarriekin sortzeko:
 - Izena: komunikazio arduraduna
 - Kopurua: 1
 - Dedikazioa: %100
- III.- 2023ko indarreango plantila eta lanpostuen zerrendak ere (GAO 2023-04-24) postu berdina ezaugarri berdinekin mantetzen duela.
- IV.- 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeen ondorengo legealdi berrirako komunikazio beharrak horretan dirauenez postu kopurua eta ezaugarriak bere horretan mantentzea beharrezkoa dela.

Guzti hau ikusirik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:



Usurbilgo Udala

Data: 2023/06/27

ERABAKIA

BAKARRA. Usurbilgo Udaleko legealdi berrirako behin behineko langile kopurua (ebentuala) batekoa izango dela zehaztea eta, hortaz, 2023ko gaur egun indarrean dagoen plantila eta lanpostuen zerrenda (GAO 2023-04-24) bere horretan berrestea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

14.- 2024KO HERRI JAIEGUNA IZENDATZEA (2023IJAI0001).

Batzarkideek alkatearen proposamena aztertu dute eta erabaki hau hartu dute aho batez:

“Ekainaren 16ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu da maiatzaren 30eko 71/2023 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2024 urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duena. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2024 urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen da.

Aipatu dekretuaren bigarren artikuluan xedatzen da tokian tokiko jaietako bi egun ere jaiegun izango direla. Horietako bat, udalek finkatzen dute.

Hau guztia horrela, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: 2024ko uztailaren 2a (asteartea) Santixabel eguna herriko jaieguna izatea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkaritzari ematea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/06/27

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:25ean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.

9/9



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUda33dd38-bc6b-4dbb-a997-ac4b99600df9**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IAPL0008-Akta 2023-06-27/Acta 27-06-2023 ()